

ELKARRIZKETA: PAUL ORMAETXEA

1996. urtean Muruetan jaioa, Paul prozesuen ingeniaria da ofizioz eta mendi korrikalaria afizioz. Denbora librean mendian galtzea eta bizikletan ibiltzea dira bere pasio nagusiak. Txikitatik aire libreko kirolak gustatu izan zaizkio, bereziki mendiarekin lotutakoak.



Zegama-Aizkorri mendi maratona 2025 - ARGAZKIA: www.lasterketak.eus

Noiz eta nola hasi zinen mendian korrika?

2018. urtea izan zen nire txirrindulari ibilbidearen amaiera. Urtea serio hartu arren gauzak ez ziren espero bezala atera. Azken lasterketa egin eta hurrengo astean Anbotoko Kilometro Bertikala korri egin nuen. Han bizitako giroa ikaragarri gustatu zitzaidan, eta 2019an korrikan hasi nahi nuela erabaki nuen.

Mendi lasterketarik kuttunena?

Lasterketa bat aukeratzea ez da erraza, baina beti esaten dut lasterketa bat errepikatzen bada, zerbaitengatik izango dela. Horregatik Arrasateko Udalatx Mendi Lasterketa auke-

ratuko nuke. Baliteke ibilbidearen aldetik ez izatea ikusgarria, baina bertako herrikoitasunak, jendearen animoek eta Udalatx mendiaren presentziak berezi egiten dute.

Zein izan da Mendi lasterketetan izan duzun momenturik hunkigarriena? Eta gogorrena?

Momentu hunkigarrietako bat orain dela gutxi bizi izan nuen Zegama-Aizkorri lasterketan. Irteera lerroan egotea bera jada hunkigarria egin zitzaidan, eta lasterketako emaitzek are gehiago bete ninduten. Ibilbidean zehar lagun asko ikusteak, eta helmugan familia zain edukitzeak, emozioa areagotu zuten. Une ahaztezina izan zen niretzat.



Arrasate-Udalatx - ARGAZKIA: Artgazki

Baina, kirol guztietan bezala, hemen ere badaude une gorrak. Horietako bat 2023ko Val d'Aran-eko lasterketan bizi izan nuen; lasterketa erdian erretiratu egin nintzen, ez nuen ulertzen zer gertatzen zitzaidan, agian urteko lasterketarik politena zen eta hala ere, gutxien gozatzen ari nintzena.

Argazki bat aukeratu, zergatik?

Argazki hau aukeratu dut, lehen aipatutako Arrasateko lasterketan ateratakoa. Emaizten aldetik ez zen nabarmen-tzekoa izan, baina edukiz, oso berezia, nire lagun Ibaiek in egin bait nuen lasterketa. Bi urte genituenetik gara lagunak, eta kuadrila berekoak gara. Afizio berdinak partekatzeak asko errazten du dena, eta ez gara bakarrik, txikitatik elkarrekin egon garen hainbat lagun gaude talde berean.

Nola ikusten duzu mendi lasterketen etorkizuna?

Kirol honen etorkizuna ez dut oso argi ikusten. Gero eta lasterketa gehiago daude, eta pixkanaka profesionalizatzen ari da. Diru inbertsio handiak egiten ari dira, eta lehen afizioz eta herri giroan egiten zen zerbeit, orain gero eta gehiago lanbide moduan hartzen da.

Hala ere, horrek ez du zertan txarra izan. Garrantzitsuenak da gure ingurua eta mendiarekin ditugun balioak errespetatzea, eta hori zainduz gero, kirolak hartu duen norabidea ere onargarria izan daiteke.

Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?

Udan atseden txiki bat hartzea tokatzen da. Irailean berriz martxan izatea espero dut, nahiz eta oraindik ez dudan argi zer lehiatuko dudan. Skyrunning ligako pare bat lasterketa egitea gustatuko litzaidake, eta aukera izango banu, Marató dels Dementsen izateak ilusio handia egingo lidake. Datorrena datorrela orain arte moduan gozatzen jarraitzea da asmoa.

Entrenamendu eta elikadurari dagokionez, prestakuntza edo planifikazio bereziren bat jarraitzen duzu?

Egia esan ez dut planifikazio zehatzik jarraitzen, baina horrek ez du esan nahi gogor entrenatzen ez naizenik edo elikadura zaintzen ez dudanik. Gauzak ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz baina burua galdu gabe, txirrindularia izateak asko lagundu didala uste dut. Bizitza eta kirolaren arteko oreka bilatzen saiatzen naiz beti ere lana, lagunak eta familiarentzako denbora gordeaz.



Zegama-Aizkorri mendi maratoia 2025 - ARGAZKIA: www.lasterketak.eus

Mendi Lasterketen Euskal selekzioan aritzeak zer ekarri ditu?

Lehenik eta behin, izugarritzko ohorea sentitzen dut Euskal Nazio hau ordezkatzeko. Uste dut egindako esfortzuari emandako sari bat dela eta horrek oso harro sentiarazten nau.

Pertsonalki izugarritzko aukera moduan ikusten dut. Izan ere, selekzioari esker esperientzia paregabeak bizitzen ari naiz; bai inoiz ezagutuko ez nituzkeen lekuak eta lasterketak ezagutzeagatik baina, batez ere, ezagututako pertsonengatik.

Ez galdu aukera Pauli eginiko elkarriketa bere osotasunean irakurtzeko. Horretarako erabili QR kodea edo sartu Pyrenaicako Blogean:

<https://pyrenaicablog.blogspot.com/2024/01/euskal-mendi-korrikalariei-elkarriketak.html>

